



ELEANIZTASUN ESTRATEGIA / ESTRATEGIA DE PLURILINGÜISMO

IKASTEGIA: 309 MEDIKUNTZA ETA ERIZAIN TZA FAKULTATEA
CENTRO: 309 FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERÍA

1. SARRERA/ INTRODUCCIÓN

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren helburu nagusietako bat da gure unibertsitateko ikasketak nazioartekotzea. Horretarako, graduen eskaintza eleaniztuna sustatu nahi du, bai UPV/EHUko ikasleentzat eta bai ikasle bisitariarentzat. Era berean, funtsezkoa da gure ikastegi eta zerbitzuetan egotea bisitariekin ingelesez egiteko gai diren langileak.

Xede hori lortzeko, ezinbestekoa da ingelesez (edo halakorik ezean, frantsesez) ematen diren irakasgaiak finkatzea eta haien kopurua handitzea UPV/EHUko gradu guztietan.

Horretarako, beharrezkoa da ikastegi eta sail guztiek hizkuntza plangintza bat egitea, titulazio bakoitzerako egokia eta baliabide propioekin luzerako irauteko modukoa. Hala ere, errektoreordetza honen asmoa da irakasgai horiek abian jartzeko prozesuaren lehen urteetan ikastegiei laguntza ematen jarraitzea, irakasgaiak hizkuntza ez-ofizialetan emateko urteroko deialdiaren bidez, betiere horretarako baldintzak betetzen badira eta aurrekontuak modua ematen badigu.

Eskaintza planifikatzean honako puntu hauek hartu beharko dira kontuan:

- Komeniko litzateke graduko titulazioetan gutxienez 30 ECTS eskaintzea hirugarren hizkuntzetan, hartara prestakuntzaren parte horrek behar besteko tokia izan dezan bertoko ikasleen nahiz ikasle bisitarien esperientzia akademikoan.
- Hobe da gradu batean baino gehiagotan ematen diren gaiak eskaintzea - hau da, oinarrizkoak, adarreko oinarrizkoak edo nahitaezkoak -, ikasle gehiagoren interesekoak izango baitira.
- Komenigarria da eskaintzen diren gaiak azken mailetakoak izatea eta lauhileko berean ematea, horrela mugikortasun programetan datozen ikasleek egin ahal izan ditzaten.



Eskaintza planifikatzeko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko hizkuntzetan irakasteko akreditatuta dauden irakasleak edukitzea. Bestalde, ingeleseko irakaskuntza sendotzeko gomendagarria da lehiaketara ateratzen diren irakasle-ikertzaile plazak hirueledun bihurtzeko eskaria egitea. Hala ere, horretarako beharrezkoa izango da aukera hori behar bezala aurreikustea eta justifikatzea oraingo estrategian.

Esan bezala, funtsezkoa da, halaber, gure ikastegietan egotea bisitariekin ingelesez egiteko gai diren administrazio eta zerbitzuetako langileak. Horretarako, zehaztu behar da zein plazararako beharko litzatekeen ingeleseko hizkuntza eskakizun zehatz bat, hartara eskakizuna aldatu dakien plaza horiei, behar diren gestio eta negoziazioen ostean.

Uste dugu helburu horietarako estrategia diseinatzean funtsezkoa dela zerikusia duten ikastegi eta sail guztiek prozesuan parte hartzea. Horregatik guztiagatik, mesedez eskatzen dizuegu honako dokumentu hau adostasunean betetzeko eta Ikastegiko Batzordean onartzeko.



2. Irakaskuntza eskaintza¹

2.1. Medikuntza Gradua

2018/2019 ikasturtea

Titulazioa : GMEDIC30 Medikuntzako Gradua									
Saila	Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred	Hizkuntza	Matrikulatuak			
						15/16	16/17	17/18	18/19
77	26711 Cell Biology	1	1	6	ENG	24	24	25	25
81	27264 Medical Biochemistry	1	2	6	ENG	-	-	-	25
94	27292 Obstetrics and Gynaecology	5	1	9	ENG	-	-	-	3

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Sarreran ezarritako helburuen ildotik, medikuntza gradua soslai eleanitza duten graduen artean kokatzea da eskuartean dugun helburua, gutxienez 30 ECTS kreditu hizkuntza ez-ofizialetan eskainiz, gure kasuan ingelesez. Horrela, atzerriko eta bertoko ikasleen esperientzia akademikoa aberastea bilatu nahi da.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Ikasle kopuru baxuagatik 2019/2020 ikasturtean ez da baimendu "27292 Obstetrics and Gynaecology" irakasgaia eskaintzea Medikuntza graduko 5. mailan Gurutzetako Ospitale Unibertsitarioko irakaskunean. Hala ere, 2018ko abenduko deialdian beste bi irakasgaia eskatu ziren ingelesez eskaintzea: Medikuntza graduko 2. mailako "Medical Microbiology and Immunology" eta 3. mailako "Medical genetics". Horiez gain, 2020/2021 ikasturterako Fisiologia (81) sailak medikuntza graduko 1. mailako 6 kredituko "Fisiologia" irakasgaia ingelesez eskaintzeko baimena eskatuko du.

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Aurreikuspena
93	Medical Microbiology and Immunology	2	8	2019/2020
163	Medical genetics	3	6	2019/2020
81	Fisiologia	1	6	2020/2021

Laburbilduz, 2020/2021 ikasturterako Medikuntza graduan aurreikusten da 24 kreditu ingelesez eskaintzea derrigorrezko eta adarreko oinarrizkoen artean, eta 6 kreditu hautazko

¹ Jasotako irakasgaiak 2018/19 ikasturtean eskainitakoak dira eta matrikulen kopurua 2018/10/23an GAUREn jasotakoak dira.



irakasgai batean. Horrela, helburu orokorrera hurbiltzen gara, graduan gutxienez 30 kreditu hirugarren hizkuntza batean eskainiz:

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
77	Cell Biology	1	6	Adarreko oinarritzkoa	2018/2019
81	Medical Biochemistry	1	6	Derrigorrezkoa	2018/2019
81	Fisiología	1	6	Adarreko oinarritzkoa	2020/2021
93	Medical Microbiology and Immunology	2	6	Derrigorrezkoa	2019/2020
163	Medical genetics	3	8	Hautazkoa	2019/2020

Kredituak guztira medikuntza graduan: 32

Txosten honen hasierako atalean azaltzen da desiragarria litzatekeela graduko derrigorrezko eta adarreko oinarritzko irakasgaietan eskaintzea ingelesezko irakasgaiak, beste gradu batzuetako irakasaiekin partekatatu ahal izateko. Alabaina, aipatu behar dugu gure fakultatean ez dugula irakasgaiak partekatzen, Euskararen Plan Gidarian jasota dauden euskarazkoak izan ezik.

2.2. Erizaintza Gradua (Leioa)

2018/2019 ikasturtea

Titulazioa : GENFER30
Erizaintzako Gradua

Saila	Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred.	Hizkuntza	Matrikulatuak			
						15/16	16/17	17/18	18/19
78	26437 Structure and Function of the Human Body II	1	1	6	ENG	24	27	23	32
78	26451 Community Nursing	2	2	6	ENG	21	45	71	47
78	27553 Ethical Anthropology & Legislation	1	2	6	ENG	41	65	42	30

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurtengo kurtsoan eta azken urteetan zehar 3 irakasgai eskaini dira ingelesez Leioako Erizaintza graduan, denak derrigorrezkoak edo adarreko oinarritzkoak, guztira 18 kreditu. Sailak ez du gaitasun nahikorik irakasgai gehiagoren ingelesezko eskaintzari aurre egiteko eta aukeratu den bidea izan da irakasgai gehiago eskaintzea EFC modalitatean (ikus 3.2 atala).

Helburuen lorpenerako ekintzak

Aurreikuspena da orain arte ingelesez eskaini diren irakasgaiak eskaintzen jarraitzea eta EFC modalitatea beste irakasgai batzuetara zabaltzea.

2.3. Erizaintza gradua (Donostia)

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurten ez da irakasgai eskaintzen hirugarren hizkuntzetan eta ez da aurreikusten sailak gaitasunik izango duenik ingelesezko irakasgai berrien irakaskuntzaren ardura hartzeko. Bi irakasle daude C1 egiaztagiriarekin baina ordezkapen postuak betetzen ari dira oraingoz.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Ingelesezko irakasgaiei aurre egiteko ezintasuna jaso da, baina EFC modalitatea indartzeko konpromisoa hartu du sailak. (ikus 3.3. atala)

2.4. Odontologia Gradua

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurten ez da irakasgai eskaintzen hirugarren hizkuntzetan eta ez da aurreikusten graduan irakaskuntza duten sailek gaitasunik izango dutenik horrelakorik proposatzeko.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Aurreikuspenaren azterketaren ondoren ez da ekintzarik proposatu.

2.5. Fisioterapia Gradua

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurten ez da irakasgai eskaintzen hirugarren hizkuntzetan. Helburua da poliki eta gradualki zenbait irakasgai ingelesez eskaintzen hastea.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Fisiologia sailak aurreikusten du Fisioterapia graduko 2. mailako "Biomecánica clínica", 6 kredituko irakasgaia ingelesez eskaintzeko baimena eskatzea 2020/2021 ikasturterako.

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
81	Biomecánica clínica	2	6	Adarreko oinarrizkoa	2020/2021



3. English Friendly Course irakasgaiak ²

3.1. Medikuntza Gradua

2018/2019 ikasturtea

Titulazioa: GMEDIC30
Medikuntzako Gradua

Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred	Matrikulatuak	
				17/18	18/19
27293 Fisiología	1	2	6		

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurten Medikuntza graduan soilik 1. mailako "Fisiología" eskaintzen da EFC modalitatean. Irakasgaiak ingelesez eskaintzearekin batera, gradu honetan aurreikusten da EFC modalitatea irakasgaietara zabaltzea.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Jarraian datorren taulak jasotzen du medikuntza graduan irakaskuntza duten zenbait sailek duten aurreikuspena EFC modalitateko irakasgaien eskaintzari dagokionez.

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
77	Genética y Biología del Desarrollo	1	6	Adarreko oinarrizkoa	2019/2020
172	Documentación, Historia, teoría y Método de la Medicina	1	6	Adarreko oinarrizkoa	2019/2020
77	Histología Médica Básica	2	6	Adarreko oinarrizkoa	2019/2020
77	Histología Médica Especial	2	6	Derrigorrezkoa	2019/2020
93	Microbiología Clínica e infección	3	6	Derrigorrezkoa	2019/2020
26	Farmacología General y Clínica	5(Gasteiz)	6	Derrigorrezkoa	2019/2020
144	Fundamentos de Cirugía	3	9	Derrigorrezkoa	2019/2020
144	Prácticas Tuteladas Rotatorio*	6	54	Derrigorrezkoa	2019/2020

* Fakultate Batzarraren onarpena eskatzen da. ospitaleko zerbitzuburu guztien adostasunaren baldintzapean.

² Arren, ahal izanez gero ama hizkuntza gaztelania ez duten mugikortasuneko ikasle matrikulatuen kopurua eman



3.2. Erizaintza Gradua (Leioa)

2018/2019 ikasturtea

Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred	Matrikulatuak	
				17/18	18/19
26437 Estructura y Función del Cuerpo Humano II	1	1	6		
27568 Practicum I	2	0	12		

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

EFC modalitateko irakasgaiak zabaltzea da helburua eta gaur egun eskaintzen direnei beste 3 gehituko genizkieke.

Helburuen lorpenerako ekintzak

"Estructura y Función del Cuerpo Humano II" "Practicum I" EFC modalitatean eskaintzeaz gain, Erizaintza I sailak hurrengo irakasgaiak modalitate horretan eskaintzeko konpromisoa hartzen du:

Saila Dpto	Irakasgaia Asignatura	Maila Curso	Kred. Créd.	Mota Tipo	Aurreikuspena Previsión
78	Salud Pública	1	6	Adarreko oinarritzkoa	2019/2020
78	Interpretación de análisis clínicos	3	4,5	Hautazkoa	2019/2020

3.3. Erizaintza Gradua (Donostia)

2018/2019 ikasturtea

Irakasgunea : 252 Donostia					
Titulazioa: GENFER20 Erizaintzako Gradua					
Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred	Matrikulatuak	
				17/18	18/19
26443 Informazio Sistemak eta Datuen Análisis	1	1	6		
25212 Osasun Publikoa	1	1	6		
26459 Atención en Fin de Vida y Cronicidad	3	2	6		



Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Gaur egun EFC modalitatean eskaintzen dira 3 irakasgai gradu honetan. Helburu gisa ezarri da EFC modalitatea beste irakasgai batzuei zabaltzea, ikusita ingelesez irakaskuntza eskaintzeko gaitasuna gaur egun ez dagoela.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Erizaintza II sailak EFC modalitatean hurrengo irakasgaiak eskaintzea proposatu du 2019/2020 ikasturtetik aurrera. Bestalde, "Atención en Fin de Vida y Cronicidad" irakasgaiari dagokionez, proposamena baldintzatuta geratzen da irakasgaiaren ardura hartuko duen irakaslearen gaitasunaren arabera.

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
79	Practicum I	2	12	Derrigorrezkoa	2019/2020
79	Practicum II	3	8	Derrigorrezkoa	2019/2020
79	Practicum III	3	12	Derrigorrezkoa	2019/2020
79	Practicum IV	4	30	Derrigorrezkoa	2019/2020
79	Practicum V	4	24	Derrigorrezkoa	2019/2020

3.4. Odontologia Gradua

2018/2019 ikasturtea

Irakasgaia	Maila	Lauhil.	Kred	Matrikulatuak	
				17/18	18/19
27246 Implantología	5	2	6		

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Aurten 5. mailako irakasgai bakarra eskaini da EFC modalitatean, "Implantología". Dekanotzatik bultzatu da EFC modalitatearen eskaintza, gradu horretan ez baitago aukera gehiegirik ingelesez irakasgaiak eskaintzeko.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Aurten eskaintzen den irakasgaiaz gain, odontologia graduan hainbat sailek hartuko dute konpromisoa hurrengo deialdian irakasgaiak EFC modalitatean eskaintzeko:

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
77	Biología Celular	1	6	Adarreko oinarrikoa	2019/2020
26	Farmacología General y Clínica	3	6	Adarreko oinarrikoa	2019/2020
93	Microbiología e Inmunología	1	9	Adarreko oinarrikoa	2019/2020



Aurreikuspena da Odontologia Graduan guztira EFC irakasgaietako kredituak 27 izatea etorkizun hurbilean.

3.5. Fisioterapia gradua

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Gaur egun ez dago irakasgaiarik EFC modalitatean Fisioterapia Graduan. Proposamena da zenbait irakasgai deialdi berrira aurkeztea.

Helburuen lorpenerako ekintzak

Farmacologia sailak proposatu du hurrengo deialdian 2. mailako "Farmacología" irakasgaia EFC modalitatean eskaintzeko eskaria egitea:

Saila	Irakasgaia	Maila	Kred.	Mota	Aurreikuspena
26	Farmacología en Fisioterapia	2	6	Beste adar bateko oinarritzkoa	2019/2020



4. Irakasle akreditatuak ³

Helburuen lorpenerako ekintzak

Hizkuntza ez ofizialetan egiaztagiriak lortzea bultzatzeko bi ekimen aurreikusten dira: alde batetik, detektatu da zenbait irakaslek C1 ziurtagiriaren bat dutela UPV/EHUtik kanpoko, baina oraindik ez dutela baliozkotu unibertsitatean. Bestalde, badaude zenbait irakasle egiaztagirirako probetara aurkezteko asmoa erakutsi dutenak, hurrengo kurtsoetan zehar. Honek guztiak akreditaziodun irakasle zerrenda handituko luke eta eleaniztasun plana aurrera eramateko planean ekarpena egin lezakete.

Saila	Ziurtagiria baliozkotu edo eta C1 mailako egiaztagirirako probetara aurkezteko asmoa duten irakasle kopurua
78	2
97	1
77	2
81	2

5. Eskuragai dauden hirueledun plazak

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak

Atal honetan ez da helbururik jaso. Dekanotza taldearen iritziz hirueledun plazetara profil aldaketa eskatzea zilegi ikusten da soilik irakasle batek irakasgairaren bat hirugarren hizkuntza batean egonkorki eskaini duenean zenbait urtetan zehar eta ez bestelako kasuetan.

6. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala

Egungo egoera zentruan

Ez dago hirugarren hizkuntza eskakizunik daukan AZL lanposturik / No hay puestos PAS con perfil lingüístico tercera lengua

Arren, gaur egun dagoen AZP plazaren bat aldatzea proposatzea beharrezkotzat jotzen bada, proposamen horren arrazoiak esplizitu egin. / Rogamos que, si se considera

³ Irakasle akreditatuen zerrenda izen abizenekin l.Eranskinean jasota dago

necesario plantear el cambio de RPT de alguna de las plazas de PAS de las que se dispone en la actualidad, se expliciten las razones de dicha propuesta.

Atal honetan ez da beharrik detektatu eta beraz, ez da ekintzarik proposatu.

7. OHARRAK / OBSERVACIONES

Txosten honen hasierako atalean azaltzen da desiragarria litzatekeela graduoko derrigorrezko eta adarreko oinarrizko irakasgaietan eskaintzea ingelesezko irakasgaiak, beste gradu batzuetako irakasgaiekin partekatu ahal izateko. Alabaina, aipatu behar dugu gure fakultatean ez dugula irakasgairik partekatzen, Euskararen Plan Gidarian jasota dauden euskarazkoak izan ezik.

SINATUTA / FIRMADO:

Dekanoa / Decano:

Joseba Pineda Ortiz

Administrazio burua / Jefa de administración

Lourdes Dafonte Pena

Ikastegiko Batzordeko akordioaren data / Fecha del acuerdo de la Junta de Centro:

2019-03-12

